



LIBURUA

“Tempus fugit”, baina nola?



**HIRUKI
GATAZKATSUA**
MARINA SAGASTIZABAL
LISIPE

AMAIA ALVAREZ URIA

Eskertzekoa da ikerketa lanen bertsio dibulгатiboak egitea. Izan ere, ikerketa ororen helburua hori da, jendarteratzea, ezta?

Hiruki gatazkatsuari buruz ari da Marina Sagastizabal Lisipe bildumako azken alean. Hiruki hori osatzen dute etxeko eta zainza lanek, enpleguak, eta parte hartze soziopolitikoak, izenburuaren bigarren zatian irakur daitekeenez.

Horren guztiaren oinarrian denbora dago, eta haren kudeaketa: zenbat denbora ematen diogu ordaindutako lanari? Eta etxeko kontuei? Zenbat denbora dugu senide, bikote/maitale eta lagunekin egoteko? Badugu denborarik herrian edo auzoan komunitatea eraikitzen/eraldutzen jarduteko?

Nondik jaio dira ‘prekariatate’, ‘autoesplotazio’, eta ‘nekearen aroa’ bezala-

ko kontzeptuak? Zenbat aldiz esan diozu ezetz proiektu interesgarri batean parte hartzeari “bizitzak ez dizulako ematen”? Ez zara inoiz etsita sentitu dena egin nahi baina ezinagatik? Noiztik ez duzu asteburu oso bat “zuretzat” hartu, horren ostean damurik sentitu gabe?

Literaturan ohiko gaietako bat da denboraren iragatea. Saiakera honetan ere horri begira jartzen gaitu egileak. Ikuspegi marxista-feminista batetik hitz egiten digu emakumeen jardunaldi hirukoitzari buruz eta hirugarrenean, arlo sozial eta politikoan, honek jarduteko dituen oztopoak aletzen ditu.

Egungo feminismoan lehentasuna diren zainza politikak eta ekonomia feminista ditugu orriotan. Baita kapitalismoa, patriarkatua eta arrazakeria elkarrekin gurutzatzen direla gogoraraz-

ten dizkiguten zenbait testigantza ere. Dimensio anitzeko krisia bizi dugula irakur dezakegu, azken urtean areagotu eta bizkortu dena. Pandemiak bizitza erdigunera ekarri baitu, nolabait, eta neoliberalismoaren erantzuna argia izaten ari da.

Liburu honek denborari buruz pentsatzeko eta eguneroko bizitzari bestela begiratzeko aukera ematen du. Kontzientzia hartzeko eskaintza da, gai honetan erreferente diren lan eta egile feministen laguntzarekin, eta irakurri ostean, hurbilekoekin eztabaidatzeko gogoia pizten du. Denoi eragiten digulako, modu batean edo bestean, gai honen, eta ardura hartuz etxetik bertatik eragin dezakegulako kolektiboan, nahi izatera, erlojuari hainbeste begiratu gabe. ●